



# ETNOPOLO ARDURADUNA

## EGINKIZUN NAGUSIAK

### Etnopoloaren egitasmoaren eramatea

- **Lau urteko egitasmo zientifikoa idatzi eta eraman:** aitzineko egitasmoetan bermatuz, helburuak definitu, deklinatu eta ebaluatu (bilketa kanpainak, ikerketa programak eta ekitaldi zientifikoak)
- **Ahozko memoriaren bilketaren koordinazioa eraman:** *Eleketa* programaren arduradunaren lana gainbegiratu, etnopoloren eta Eleketaren arteko lotura landu eta elikatu, funtsaren balorapen ekintzak proposatu eta gainbegiratu (erakusketak, hitzaldiak, interneteko balorapenak)
- **Ikerketa programak kudeatu edo/eta segitu:** memoria eta sorkuntza, hizkuntza eta jendartea, kultura eskubideak. Beharrez, ikerketak sortu eta eraman
- **Ekitaldi zientifikoak antolatu eta kudeatu:** urtean lau mintzaldi eta kolokio bat), etnopoloa sortu duten partaideekin

### Etnopoloaren animazioa eta komunikazioa segurtatzea

- **Etnopoloaren gidaritza batzordea kudeatu:** solasgaien prestatzea, bilkuren deitzea, animatzea, bilduma egitea
- **Etnopoloaren administrazioarekiko eta sarearekiko harremanak mantendu eta landu:** bilanak egin, aurrekonduak eta proiektua aurkeztu
- **Etnopoloaren ekintzen komunikazioa** (egitarauen prestaketa, artikuluen idazketa, komunikazio kanpainak segipena) eta **balorapena** segurtatu (kolokio eta hitzaldien sarean ematea)

### Baliabide iturri izatea ondarea sailean

- **Partaidetzak landu lurraldeko erakundeekin**
- **Ingeniaritza ekarri herriko etxeei, elkarteei:** heien proiektuak sustatu eta lagundu)
- **Publiko desberdinak norabideratu:** eskaerei erantzunez ahal den neurrian (prentsa, ikerlariak, publiko zabala)

## ESKATUTAKO IKASKETA MAILA

- Baxoa + 5 urte

## ESKATUTAKO KALITATEAK

- Antolatua, kudeatzailea eta koordinatzailea izan
- Entzuteko, analizatzeko eta sintetizatzeko gaitasunak ukan
- Jakitate zientifikoa jendarteratzen jakin
- Ahozko memoriarekiko interesa ukan

## ESKATUTAKO GAITASUN TEKNIKOAK

- Euskaraz eta frantsesez ongi mintzatzea eta idaztea
- Ahozko eta idatzitako komunikazioan errentasunak ukaitea
- Proiektu eta talde kudeaketan esperientzia ukaitea
- Antropologian ezagutza ona ukaitea
- Tresna numerikoetan trebe izaitzea
- Baliozko B gida-baimena ukaitea



EUSKAL KULTUR  
ERAKUNDEA  
—  
INSTITUT CULTUREL  
BASQUE

# ETNOPOLO ARDURADUNA

## INFORMAZIO OSAGARRIAK

### Orduetgia

- Denbora osoko lanaldia: astean 35 oren

### Lan Tokia

- Lota jauregia - Uztaritze
- Bulegotik mugitzea elkartearen beharren arabera

### Kontratua

- Urtebeteko lan-kontratu mugatua, mugagabea bilaka daitekeena

CV eta motibazio gutuna bi hizkuntzatan igorri behar dira, mailez 2024ko urriaren 31ko berantetik :  
[elix@eke.eus](mailto:elix@eke.eus)

Euskal kultur erakundea - Institut culturel basque  
Château Jauregia Lota - 64480 Uztaritze - Ustaritz  
Tel. 0(033)5 59 93 25 25 - [info@eke.eus](mailto:info@eke.eus)  
[www.eke.eus](http://www.eke.eus)



**ETHNO  
PÔLE**